

## SANTU, SAN, DONE ETA INGURUKOAK

1999-IV-22

Patxi Salaberri Zaratiegi,  
Onomastika batzordekidea

Santu izendegia onartu ondoren, beharrezkoa ikusten du Euskaltzaindiak izen horiekin joaten ohi dena, aurrean edo atzean, arautzea.

Ezaguna da euskaraz santu izen batzuek, hain zuzen ere zaharrenek, latineko *dominus / domina* hitzetatik atera diren *done / dona* dituztela aldamenean. Aebischer, Dauzat, Meyer-Lübke eta beste erromanista batzuek erakutsi duten bezala, ohitura hori oso goiztiarra izan zen Europan eta 11. mendera arte aski arrunta. Gogora bitez *Dompierre / Dampierre, Donremy, Dommarie / Dammarie* izenak, esaterako. Usadio zahar horretan, euskaraz maiz *jaun / andre* eransten zen, beste hizkuntzetan egiten zen gisa.

Zenbait autoreren erabilera ikus daiteke adibide hauetan:

*Andre Dona Maria* (Etxepare), *Andre Dona Maria* (Beriain).

*Donalalla* (Lizarraga Elkanokoa, 'Santa Eulalia').

*Jandone Cue* ('Jaun Done Jakue', Olaetxea).

*Done Meteri Celedon* (RS).

*Iaundone Miquel Aynguerua* (Beriain).

*Iondone Petri* (Axular); *Iandone Peri* (*Viva Jesus*).

*Jaun Done Petri* (1), *Jaundone Jacua* (Duhalde).

*Jaun Done Joane* (Duvoisin).

*Done*-ren aldaerak ez dira gutxi testu zahar eta berrietan: **Jandone** (Olaetxea), **Jaundone** (Beriain, Duhalde), **Iaundone** (Kapanaga), **Iuandone** (Beriain), **Ioandone** (Betolatza, Beriain), **Jaun Done**, **Jaun done** (Jauretze, Jon Etxaide (2)), **Iandone** (*Viva Jesus*, Betolatza, Kapanaga), **Joandone** (Tartas), **Jondone**, **Iondone** (Béla, Axular, Pouvreau, Harizmendi, Larreko, P. Iturralde

---

(1) Aurrekoan Jauretze agertu arren Duhalderi zegokion aipua.

(2) "Euskal pontizen batzuk aztarrikatuz", *Euskera*, XXX 2. Aldia, 513-525.

[Lafitte?; zuberotar baten ahotan]), **Jondane** (Pouvreau), **Dona** (Pouvreau), **laundoni** (Etxeberri Ziburukoa), **Jaun Doni** (Lapeyre), **Iondane**, **Jondane** (Belapeire, Maytie); **iondané** (*Pronus*, Belapeire?), **Iondoni** (Xurio, Baratziart, Laphitz), **Jondoni** (Lavieuxville, Haraneder, Monho, Larreko, P. Iturralde [Lafitte?], J. Hiriar-Urruti-II), **Yondoni** (Manezaundi), **Jon Doni** (Oxobi), **Yaundoni** (Bernard Larregi), **Jundene** (Añibarro), **Jundane** (A. Xaho), **Done** (RS, Añibarro, Iztueta, Txomin Agirre, Larreko, Orixek), **Doni** (*Ūskara libria*), **Jaun-done** (Aresti). Orixek, gainera, *Donibane*, *Gurutzeko Donibane* edo *Donibane Gurutzeko* eta *Iban Gurutz* ibiltzen ditu.

(*Andre*) *Dona*-k aldaera gutxiago ditu: **Andredena**, **Andre Dena** (B. Etxepare, Gazteluzar, Larreko, Manezaundi, Oxobi, P. Iturralde [Lafitte?]), **Andre dona** (Beriain), **Andre-dona** (Aresti), **Andrane** (Betolatza, Kapanaga), **Dona** (Lizarraga Elkanokoa), **Done** (Txomin Agirre).

*Done* bakarrik ere agertzen da testu zaharretan, gutxitan izan arren:

*Otu doneari ygarartean nequea*, RS 545 (cf. Oihenart 662: *Othoi sainduari, deraunsano ekaizari*).

Orobat testu berriagoetan: *Done* (Iztueta, Txomin Agirre), *Jandonea* (Larreko).

Zer esanik ez, leku-izenetan oso ugariak dira *done* / *dona* (eta aldakiak), bai eta jai izenetan ere (elkarketa legeengatik, *done* > *dona* dugu maiz):

*Donostia* (<\**Donesebastiani*).

*Doneztebe* (*Santesteban* erdaraz); *Joan Done Estebe* (Lareki, Urraulgoiti), *Juandone eztebe* (Eslaba).

*Dona Gracia* (Espartza-Galar; Orotz-Betelu; Aietxu).

*Dona Julia* (Deierri).

*Donamaria* (herria); *Andredonamarialdea* (Bidaurre), *Dona Maria* (Deierri; Leotz; Muru-Artederreta; Narkue...).

*Donaralla* (Santa Eulalia, Orban eta Aranguren), *Donadalla* (Artzibarren).

*Dona Pia* (Iruñea).

*Donamartiri* (fr. Sain-Martin-d'Arberou); *Joandonemartie* (Irurre).

*Donapaleu* (fr. *Saint-Palais*); *Donaparai* (<\**Done Perai*, Aberasturi); *Donplai* (Burgi); *Joandenebelayo* (Eslaba).

*Donaisti* (<\**Done Justi*).

*Donibane*; *Donineko jaiak* (Bakio).

*Donacuilar* (<\**Done Jakue larra*, Arabako Villafrancan); *Joan done Jacue* (Aria).

*Dona Loria* (Santa Alodia, Eulaten).

*Done Meteri* (Gastiain, Larragoa).

*Done Miquendi* (Mañeru).

*Done Miri* (Arroitzen, Biurrunen eta Oletan).

*Doneperuaga* (Deustuko San Pedro eliza, antzina).

*Done Tomo* (Burgi).

*Durruma* (<\**Done Errumane*) "la fiesta de Durruma", esaten da Arabako herrian, hots, San Roman herrian. Cf., gainera, *Juandeurruma* Maeztun.

*Jandoneperi* (Arrigorriaga).

*Juandenurgi* (Azazetan). Cf. *Sandijurgi*.

*Juan Dene Marti ondoa* (Ibero).

*Joan done ortuxi* (San Frutos, antza duenez) Orba ibarrean.

*Joan done Miquel aldea* (Egues); *Juandenemiguelaurrea* (Muzki).

*Juandone Julio* (Moriones); *Done Jurio* (Leatxe).

*Joandone Salvatore* (Irangote, Oibar harana).

Literaturak eskaintzen dizkigun lekokotasunak gogoan edukirik, beraz, ez da garbi ikusten zergatik hautatu behar den, zenbaitek proposatzen duten moduan, **Jondoni** aldaera batutzat, hau da, zergatik aukeratu behar den, dauden hamaika aldaeren artean, forma itxuraldatu hori. Zergatik ez, ildo beretik, Axularren eta besteren **Jondone** edo Lapeyteren **Jaun Doni**? Eta zergatik ez men-debaldeko tradiziokoa den **Jandone**? Gure ustean aldaerarik gardenena, euskaldun guztiendako ulerterrazena dena, **jaun done** da dudarik gabe, eta ez dugu pisuzko arrazoirik ikusten **jondoni** proposatzeko. Era berean, femeninorako egokiago ikusten dugu **Andre dona Andre dena** edo **Andredena** baino.

Irizpidetzat literaturan erabili dena hartuz gero, badira beste aldaera batzuk hori bezain onargarriak direnak. Gainera, kontuan eduki behar da gure zenbait idazlek **Jaun Done** aposizioa eta aldaerak ohikoak, tradiziokoak diren izenekin ez ezik, horrelako osagarririk behin ere izan ez duten beste izen askorekin ere ibili dituztela. Esaterako, hor daude Larrekok ibiltzen dituen *Jondone Augustin / Jondoni Augustin* (3), *Jondone Atanasi*, *Jondoni Domingo*, *Jondoni Fermin*,

(3) Hagionimo honen kasuan ezin esan dezakegu inoiz erabili ez dela, Orbako toponimian honen euskarazko aldaera bide den *Juan done mustio* azaltzen baita. *Mustio*, irudiz, aurreko \**Augustino* batetik atera dateke.

*Jondoni Ferrando, Jondone Frantzisko Asiskoa / Jondone Asiskoa / Jondoni Franzisko Xabier / Jondoni Frantzes Xabier, Jondone Iñaki / Jondoni Ignazio, Jondoni Iñaki (Loyolakoa), Jondoni Isidore, Jondoni Isidro, Jondoni Jakes, Jondoni Joan ebanjelaria, Jondone Jose, Jondoni Juan, Jondoni Juanes, Jondoni Juani, Jondoni Joni Batista, Jondoni Martin, Jondone Mikel / Aralarko Jondone Mikel / Jondoni Mikel( Aralarkoa), Done Nikola / Jondoni Nikolas, Jondoni Satorde (4), Jondoni Tomas, Jondoni Xabier, Jondone Zernin / Jondoni Zernin, maskulinoetan eta Andre Dena Maria, Andre Dena Pilarekoa femeninoetan.*

Napartarra-n (Larrekok aipatzen ditu) *Yon Done Kiril* eta *Yon Done Metodi* ere azaltzen dira; Iztuetak, lehenago, *Done Agustin, Done Bartolome, Done Inazio, Done Juan, Done Teresa* ditu. Txomin Agirrek *Done Anton, Done Antonio, Done Bizente, Done Joane, Done Paulo, Done Pedro, Done Klara, Done Saturnino, Done Tomas, Done Zizilli* ere badarabiltza, *done* aposizioa posposiziotzat duen aldaeraz —*Antonio Donea*— landa; Gabriel Arestik *Jaun-done Alexo, Jaun-done Betiri, Jaun-done Bladi, Jaun-done Eustakio, Jaun-done Eztebe, Jaun-done Jakue Nagusia, Jaun-done Joane Bataiatzailea, Jaun-done Joane Caillabit, Jaun-done Julian Antiokia-koa* eta *Jaun-done Marti* ibiltzen ditu, eta Jon Etxaidek *Jaun done Pantxiko*. Zerrenda luza daiteke, nahi izanez gero.

Hortaz, literatura —azken bi mendeotako edo literatura— irizpide hartuz gero, badirudi mintzagai dugun aposizioa, izan dadin **Iondoni**, izan dadin **Jaun Done** edo beste zeinahi, edozein izenekin erabil litekeela. Hau, gure ustean, gehiegikeria da, eta mugatu egin beharra dago. Hemendik segitzen da, bistan denez, literatura aintzat hartu behar dela, dudarik gabe, baina ezin dela inola ere irizpide bakartzat aitortu. Euskara bizia eta hagiotoponimia ere kontuan edukitzekoak dira, gure iritzian.

Euskara bizia dela-eta, norbaitek esan dezake **Iondoni** aldaera bizirik dagoela —**Jon Doni** idazten zuen Oxobik—, eta beraz hobestekoa dela. Hau uste dugu asko ñabartu behar dela: lehenik jakin behar genuke non dagoen bizirik, eta indarrik ba ote duen. Ez dakigu Iparraldean zehazki zer gertatzen den, baina Luzaideko egoera ezagutzen dugu —neurri batean balio dezakeena— eta bertan zenbaitek erabiltzen duten **Iondonáni**-z landara (“San Juan”) ez dago deus askorik; Manezaundik alabaina honela zioen bere lantxo batean:

Erran dezagun aitzinetik XVI. mendean Iruñeko paper zaharrek erakhusten daukutena. Denbora hortan oraiko San saturnino eliza deitzen zuten “Iglesia de *Jaun done Satordi*”. San gregorio-ko dorreari “la torre de *Don Gergori*”.

Ohartzekoa da Benabarren, Laphurdin eta Xuberon nola deitzen duten Santiago eguna. *Yandenaki* (Yaundone Yaki = santo señor Yako).

(4) *Moret iruindarrak bere Anales del Reino de Navarra*-n Nafarroako hiriburuko *San Saturnino*-ren (= *San Cerni(n)*) euskarazko kidetako *Jaun Done Satordi* ematen du.

Ene sortherrian (Luzaide) galdegiten balinbaduzue noiz diren herriko bes-tak ihardetsiko dauzutue (sic): “Yandenakitan” (Santiagotan). Ikhusten dugun bezala mendiez beste aldekoek, (eta bai Iruñekoek lehengo denboretan), bethi *yaun* ezartzen zuten *done* aitzinetik.

Huna bertze eskuarazko saindu batzuen izenak oraiko egunetan deitzen dituztenerekin (sic).

Yandone Petri, San Pedro. Yandone Mikelan, San Miguel. Yandenani (yaun done Joani), San Juan (5).

Hegoaldean, bestalde, ez dugu **Iondoni**-rik aurkituko (Larrekoren lana alde bat uzten badugu), ez orain ez antzina. Bai, ordea, **Jaun Done** eta honen desitxuraketaren ondorio diren **Jandone, Juan Done, Juan Dene...** eta beste ha-maika, literaturan eta batez ere garai bateko eguneroko hizkera biziaren isla den hagiotoponimian ere.

Gehiegikeria da gure irudiko Iparraldeko alderdi batean —Zuberoan ez baita erabiltzen ez erabili— erabat indargabetua eta hil hurrar bide dena Euskal Herri osora zabaldu —inposatu— nahi izatea, jakinik-eta ez Zuberoan ez Hegoaldean horrelakorik inoiz ibili ez dela. Hegoaldean, eta esan gisan, **Jaun Done**-ren ondokoak edireten ditugu arruntean, baita egungo egunean ere, hagiotoponimian eta aztarna ihartu zenbaitetan (cf. Azkuek dakarren Aezkoako *Jaun Donaani* Batista, Larrabetzuko kanta batean Barandiaranek bildurikako *Doniane* edo Bizkai-Gipuzkoetako herri batzuetan ibiltzen den *Donienatxa* ‘Doniane-aretxa’).

Bestalde, literaturan ere Iparralde / Hegoalde zatiketa nabarmena da, **Iondoni** —nola ere idazten baita hau— ia soilik Iparraldeko idazleek erabili baitute, honetan Iparraldeko literatura tradizioari jarraituz zaion Larreko alde bat utziz gero (izan liteke besteren bat). Iparraldean, gainera, eta zuberotarrak bazter utzirik ere, ez dute denek **Iondoni, Yondoni...** erabili, hor baitago, adibidez eta besteak beste, Duhalderen **Jaundone**.

Hagiotoponimiak ez duela balio, zerbait zaharkitua eta igarora dela esaten duenari esan dakioke literatura ere, orain-oraingoa ez bada, ez dela egungo normaren isla, euskara “zaharkitua”, “izoztua” edo “hormatua” dela, neurri handi batean.

Bestalde, hasiera-hasieratik *sanctus / sancta* parearen ondorengoak ohi-koak izan dira gure artean, literaturan eta hagiotoponimian; aposizioa izenaren aurrean zegoenean *san(t) / santa, sa(i)nda* erabili izan da, eta *sa(i)ntu, saindu, sandu / santa, sa(i)nda* bakarrik agertzen zenean. Gutxiagotan erabiliak izan dira *seint / seinta* (Salaberri, hiztegian) eta *sen* (gogora Iribarne zuberotarraren *Sen Grat* liburua, 1879koa). Hona adibide batzuk:

(5) *Artikulu bilduma*, R.M. Pagolak paratu argitalpena, Euskal Editoreen Elkarte, Bilbo, 1990, 282-283.

*San Agustin* (Axular).  
*Santa Lucia* (Axular).  
*San Piarrez* (Etxeberri Ziburukoa).  
*San Bernat* (Duhalde).  
*San Miguel* (Arzadun).  
*Espiritu Sandua* (Berriain).  
*Santa Elizabeth* (Arbelbide).

Hagiotoponimian, bestalde, ugariak dira *Santi* edo *Sandi* (< *Santi* < *Santi*) dutenak ere:

*Sandiandore* ('San Andrés'; aldaera franko ditu eta Euskal Herriko hainbat tokitan azaltzen da, Berroztegieta eta Monasteriogurenen, esaterako).

*Sandiatiri(a)*, *Santatria*... ('San Adrián'; Askartzan, Kontrastan...)

*Sandijusti*, *Santijusti* ('San Justo', Galar).

*Sandijurgi* (*Sandúrdi* Idotzin eta Elon; = *Jaun Done Jurgi* 'San Jorge').

*Santikurutz* (Olaetan).

*Sandilaurendi* ('San Lorentzo', Agoitz, Arike, Etxalatz).

*Santilari* ('San Hilario', Artariain).

*Santimami* ('San Mamés', Leioa-Erandio; cf., gainera, Etxabarri-Allingo *San Mamia*).

*Santimartzelo* (Lunan).

*Santitisi*, *Santitis* ('San Tirso', Bernedo, Galipentzu).

*Sanditume*, *Santitume* (= *Done Tome* 'San Tomas')...

Mende honetako idazleen lanetan atzean paraturik ere azaltzen da *sandu*: *Mateo*, *Marko*, *Luka ta Yoan Sanduak*... (Polikarpo Iraizozkoa).

XIX. mendearen azken aldetik gaur arte nabaria da literaturan *done* / *dona* bikotearen berpiztea, Hegoaldeko idazletan:

*Done Bizente*, *Done Gregorio*, *Done Paulo*, *Done Saturnino*, *Done Tomas*... (Txomin Agirre).

*Done Nikola* (Larreko).

*Done Peru* (Azkue).

*Done Baladi* (Orixe; cf. Luzaideko *San Bladi* bizia)...

Bukatzeko diogun *san*, *santu* eta *santa* saihesteko *deun* / *deuna* sortu zuela S. Aranak, jatorra den *deunge*-tik atereaz (*Kepa deuna*, adibidez, "done Petri" esateko). Hau, bistan denez, ezin da ontzat hartu euskara batuan.

Auzo, herri eta hirietan patroï edo zaindariaren omenez egiten diren jaiak adierazteko, Hegoaldean, izenaren aurrean *san* edo *santa* ezartzen da, eta sin-tagma mugatu pluralean erabiltzen: *sanblasak*, *sanferminak*, *santamarinak*, *sanprudentzioetan*, *sanmartzialak*, *santanetan*, *santaisabelak*, *sanjoanetatik* *sanpedroetara*...